

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2017ko UZTAILAREN 27an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2017ko uztailaren 27an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2017ko uztailaren 6an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 6 de julio de 2017.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 1/2017 Kreditu aldaketaren hasierako onspena, hala bada./Aprobación inicial de la modificación de créditos nº1/2017**
- 4. Tolosaldea Garatzen-ek eginiko eskaera onestu, Eskualdeko proiektu estrategikotarako funtsaren gaiari buruz/ Aprobación de la solicitud realizada por Tolosaldea Garatzen sobre la financiación del fondo estratégico comarcal.**
- 5. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak 2017/2018 ikasturterako aurkeztutako aurrekontuaren onspena, hala bada./ Aprobación del presupuesto presentado por Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, curso escolar 2017/2018.**
- 6. Kultur etxea eta Udaletxearen garbiketa zerbitzuaren esleipena, hala bada./ Adjudicación del servicio de limpieza de la Kultur etxea y Ayuntamiento.**
- 7. Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuen esleipena, hala bada./Adjudicación del servicio de urbanismo y arquitectura al Ayuntamiento de Larraul.**
- 8. 2016/2017 Ikasturteko Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzen onspena, hala bada./Aprobación de las solicitudes de ayudas económicas a los habitantes de Larraul por cursos de euskara, curso escolar 2016/2017.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9. Larraulgo Beobideburu baserriko 2.go etxebizitzaren lehen erabilerarako baimenaren eskaera, hala bada/Solicitud de primera ocupación de la segunda vivienda situada en el caserío Beobideburu de Larraul.
10. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
11. Beste batzuk/Otros.
12. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2017 urteko uztailaren 6ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

13/2017 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 13koa, 2017ko 2. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

14/2017 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 18koa, 2017-KALD-000001-00 Kreditu aldaketari hasiera ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.


HIRUGARREN PUNTUA

1/2017 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.210.161.00.01 2017	AZPIEGITURA GASTUAK: UR SAREA	250,00	2.500,00	2.750,00
1 0000.210.342.00.01 2017	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.PILOTALEKUA	550,00	150,00	700,00
1 0000.212.165.00.02 2017	AZPIEGITURA GASTUAK: ARGITERI PUBLIKOA	500,00	2.700,00	3.200,00
1 0000.226.341.00.01 2017	KIROL JARDUERAK	1.300,00	1.420,00	2.720,00
1 0000.422.336.00.01 2017	BESTE ENTITATEEI: MEMORIA HISTORIKOA	0,00	350,00	350,00
1 0000.422.341.00.02 2017	BESTE ENTITAT.:DANENA TXIRRINDULARI ELKA	0,00	500,00	500,00
1 0000.480.335.00.01 2017	PARTIKUL.APORAZIOAK. EUSKARAKO IKA.	1.500,00	1.500,00	3.000,00
1 0000.623.153.30.02 2017	ZERB.FUNTZION. INBERTSI: PARKEAREN KONP	4.000,00	985,44	4.985,44



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1 0000.683.920.00.00 2017	INBERTSIOAK: ONDARE ONDASUNAK	0,00	584,61	584,61
1 0000.601.153.20.01 2017	AZPIEG.ETA URBANIZ.:OLATZAKO BIDEA	0,00	40.873,80	40.873,80
GUZTIRA		8.100,00	51.563,85	59.663,85

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2017	GERAKINAK	51.563,85
FINANTZAKETA GUZTIRA			51.563,85

KODEEN AZALPENA


- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

BIGARRENA: Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

HIRUGARRENA: 2017ko uztailaren 18an egindako Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2017rako aurrekontuen egonkortasuna eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Hala ere, kontuan izanda 2017rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

Dena den, Kreditu Gehigarrien espedienteak honako finantziarioa du :

- Gastuak handitzea..... 51.563,85€
- Finantzaketa:

2 0000.870.000.00.01 2017	GERAKINAK	51.563,85
---------------------------	-----------	-----------

Eta argi eta garbi ikusten da kreditu espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

LAUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN-EK EGINIKO ESKAERA ONESTU, ESKUALDEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOTARAKO FUNTSAREN GAIARI BURUZ

Ikusirik Tolosaldea Garatzen-ek eginiko eskaera, non Larraulgo Udalarri eskatzen dion, 2014,2015,2016 eta 2017 urteetarako hartua duen konpromisoaren arabera, 2017 urteari dagokion ekarpena egin dezaiola Tolosaldeko Proiektu Estrategikoen Funtsari, Tolosalderako estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bideragarri bihurtzeko baliabideak bermatuz eta horrela eskualdera, eta ondorioz, Larraulgo udalerrira ere, enplegua eta aberastasuna sustatzeko bide berriak irekiz.


Urteko ekarpena udalerrri bakoitzak aurreko urtean IAE kontzeptuan kobratutako kopuru totalaren % 10 izango da.

Ikusirik, badaudela herri txiki batzuk IAE kontzeptuan ez dutela ezer kobratzen. Hau kontutan izanik, Herri txikien arteko bilera baten ostean, hauek adostu zuten ekarpen finko bat egitea Tolosaldea Garatzen-i, proiektu estrategikoen funtsari, Udaletxe txiki bakoitzak 500 eurotako ekarpena egingo duelarik.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 500 eurotako ekarpena egitea, 2017. urteari dagokion Tolosaldeko Proiektu Estrategikoen funtsarako.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENGOA.- 500 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENGOA.- Erabaki honen berri Tolosaldea Garatzen-i ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAK 2017/2018 IKASTURTERAKO AURKEZTUTAKO AURREKONTUAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Gipuzkoako Bertsozale elkarteak aurkezturiko 2017/2018 ikasturterako aurrekontua, non 519,27 eurotako den. Bertan ondorengo zerbitzua emango dute:

- Bertsozale Elkarteko zerbitzua 2017/2017 ikasturtean. Bi astez behin ordu bete talde bakoitzeko. Kurtsoaren iraupena 36 aste natural, 32 aste lektibo.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak aurkezturiko 2017/2018 ikasturterako aurrekontua onestea, bere kostua, 519,27 eurotako delarik.

BIGARRENA.- 2018 urteko aurrekontuan, partida nahikoa aurreikustea.

SEIGARREN PUNTUA

KULTUR ETXEA ETA UDALETXEAREN GARBIKETA ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2013/2014 ikasturterako kultur etxearen garbiketa zerbitzua Larraulgo Udalak bere gain hartu zuela, Larraulgo Guraso Elkarteak jakitera eman zuten, ez zutela jarraitu behar zerbitzu hau eskaintzen.


Ikusirik, ordutik hona, garbitasun zerbitzua, kontratu bidez esleitua izan dela.

Ikusirik, 2017/2018 ikasturterako udal eraikinen garbitasun kontratua esleitu ahal izateko Zu eta Biok enpresari eskatu zaiola aurrekontua, kontratu txiki bat delako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Zu eta biok enpresari, Kultur etxea eta Udaletxea garbitzeko aurkezturiko aurrekontua onestea eta zerbitzua esleitzea, esleipena 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31rarte izango da, ondorengo lanak egiteko aurkezturiko aurrekontua



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

(orduak irailean zehaztuko dira, eraikinak izango duten erabilera, orduan finkatuko delako):

Garbiketa:

Kultur etxea: Egunero 1.5 ordu (0.5+1)

Udala: Astean 1.5ordu

Orduko prezioa: 22,76euro (BEZ barne)

Eraikin bakoitzean kristalak garbitzeko bi ordu eta erdi beharko dira, proposamena Udaletxea urtean behin eta Kultur etxea urtean bi aldiz.

Orduko prezioa: 22,76euro (BEZ barne)

BIGARRENA:Zu eta biok enpresari jakinaraztea, Udalaren esku egongo dela, garbitasunari buruz kezak badaude edo fakturarekin adostasun faltak sortzen badira, edozein momentutan kontratua moztu ahal izango duela, inolako kalte-ordainik gabe.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Zu eta Biok enpresari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOLOKULARITZA ZERBITZUEN ESLEIPNENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzua, Larraulgo Udalean eskaintzen hasi zela 2015 urtean, astean bi ordu Udaletxean dagokion zerbitzua eskainiaz.

Ikusirik, orain arte Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoari aurrekontu bat eskatu zaiola, aipaturiko zerbitzua prestatzeko.

Ikusirik Eba Erkizi Brion arkitektoak aipaturiko aurrekontua aurkeztu duela, ondorengoa diolarik:


“LARRAULGO URDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOLOKULARITZA ZERBITZUEN LAN PROPOSAMENA

Proposamen honen helburua, Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza gidatuko dituzten irizpideak zehaztea izango da.

1.-GARATU BEHARREKO LANAK

Egin beharreko lanak hurrengoak izango dira:

- *Herritarren hirigintza kontsultei arreta zerbitzua.*
- *Obren kontrola.*
- *Obra txikien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Obra handien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Sailkatutako jardueren baimenari buruzko txostenak.*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- *Jarduera salbuetsien baimenari buruzko txostenak.*
- *Planeamendu tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Gestio tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Hirigintza diziplinako txostenak.*
- *Segregazioei buruzko txostenak.*
- *Hirigintza balorazioak.*
- *Alkateak, udal bazkideek edo udal idazkaritzak eskatutako beste edozein motatako txosten edo azterketak egitea.*

Lan hauetaz gain, eta udalak eskaturik hirigintza aholkularitzarekin loturiko lan eta informazio bileretara joango da, bai udaletxean bertan edota kanpo administrazioetan, ala nola Diputazioan, Eusko Jaurlaritzan...

Era berean eta kasua balitz, obra eta hirigintzako udal batzordeetara joango da, udal bazkidek beraien erabaki hartzeetan aholkua emateko.

2.-LANTOKIA

Herritarrentzat aholkularitza zerbitzuak eta bestelako hirigintza lanak, astero bi orduz udaletxean egingo dira.

Denbora honetatik kanpo egin ezin diren txosten edo aholkularitza lanak, sinatzen duen arkitekto honen bulegoan egingo dira, eta gehienez, beraien eskaeratik bi aste barruan entregatuko dira.

Bilerei dagozkien beste lanak, udaletxean bertan edo dagokion administrazioan burutuko dira.

3.-ORDAINSARIA

Udaletxean hilero aholkularitza lanetik jasotako ordainsaria 532,88€ (BEZ-a gabe) izango da.

Ordu hauetatik kanpo gertatzen diren lanen ordainsaria, egindako lanordu kopuruetan eta joan-etorrietan erabilitako denboran neurtuko da, hilero 53,29€/orduko fakturaturuz, ondoren dagokion BEZ-a gehituz.


Hurrengo urteei dagokienez, kopuru hau “ kontsumo prezioen indiziea”-aren arabera gehituko da.”

Ikusirik aipaturiko kontratua, kontratu txiki bat dela ez delako 18.000 eurotako gastua gaınditzen.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Eba Erkizi Brion Arkitektoari, Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuaren kontratua esleitzea, urtebetez, 2017ko



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

irailean hasiko delarik bere zerbitzua prestatzen eta 2018ko abuztuaren 31an bukatuko delarik. Astean bi orduz, Larraulgo Udaletxean bere zerbitzua eskainiko duelarik, hilean 532,88 eurotako diru-kopuruaren truke. Aipaturiko ordutegi horretarik aparte, Udalak eskatutako lanak egiteagatik fakturatuko duen ordainsaria 53,29€ordukoa izango da.

BIGARRENA: Eba Erkizia Brion Arkitektoari jakinaraztea, Larraulgo Udaletxera bertaratu beharko duela dagokion kontratua sinatzera.

HIRUGARRENA: Aneli Urbietta Alkate-Lehendakari andrea ahalmenu aipaturiko kontratua sina dezan.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2016-2017 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZEN ONESPENA, HALA BADA


Ikusirik Larraulgo Udalak 2017ko uztailaren 6an ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2016-2017 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2, 3 eta 4 oinarriak betetzen dituztela, ondorengoak direlarik:

IZEN ABIZENAK	JARDUERA
S.G.A.	EUSKARA
F.A.O.	EUSKARA
P.P.S.	EUSKARA
J.G.A.	EUSKARA
P.H.G	EUSKARA
K.V.D.W.	EUSKARA
L.P.O.	EUSKARA
V.L.E.	EUSKARA

Ikusirik S.G. andreak eginiko eskaera, non azaltzen duen, uztailan eta abuztuan Lazkaoko Maizpide euskaltegian, 15 eguneko bi barnetegi egiteko asmoa duela, eta horretarako Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik, K.V.D.W. andreak eginiko eskaera, non azaltzen duen, abuztuan eta irailan Donostiako Hitzez euskaltegian, euskara ikastaro trinkoak egiteko asmoa duela, eta horretarako Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2016-2017 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak onestea, diru-laguntza eskaturiko %100 izango delarik. Eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

BIGARRENA.-. K.V.D.W. andreari jakinaraztea, abuztuan eta irailean egin behar dituen ikastaro trinkoen kostuak, Larraulgo udalak finantzatuko dizkola.

HIRUGARRENA.- S.G. andreari jakinaraztea, uztailan eta abuztuan egin behar dituen barnetegien klaseen kostuak, Larraulgo udalak finantzatuko dizkiola.

LAUGARRENA.- 2017 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea

BOSTGARRENA.-Erabaki honen berri interesatuei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

LARRAULGO BEOBIDEBURU BASERRIKO 2.go ETXEBIZITZAREN LEHEN ERABILERARAKO BAIMENAREN ESKAERA, HALA BADA


Ikusirik A.U.L. jaunak eginiko eskaera, non dioen Larraulgo Beobideburu baserrian etxebizitza berri bat egokitzeko egin behar diren lanak egiteko obra baimena eman zitzaioela, 2016ko martxoaren 3an eginiko Udalbatzarrean, Eneko Iturbe Rekondo, arkitekto teknikoak eginiko exekuzio proiektuaren arabera, 2016ko otsailaren 18ko bisatua izan zena.

Ikusirik, aipaturiko obrak amaitu direla, U. jaunak Udalbatzarrari eraikinaren lehen erabilerarako baimena eskaera egiten dio.

Ikusirik, 2017ko uztailaren 7an Udal Aholkulari Teknikoa den, Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO BEOBIDEBURU BASERRIKO 2º ETXEBIZITZAREN LEHEN ERABILERAKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTEN TEKNIKOA

A.U.L. jaunaren Beobideburu baserrian dagoen 2º etxebizitzaren lehen erabilerako baimena eskaera ikusirik, eta 2017-ko apirilaren 3-an ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen “Beobideburu baserria eraberritzearen proiektuari” egokitzen zaiola adierazten dut, eta baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beobideburu baserria, bi etxebizitzekin, Larraulgo lur ez urbanizagarriaren gutxienezko 2 hektareako jabetzei lotua geldituko da, itsatsi eta zatiezin modura.

Obran sortutako eraikuntza eta eraispén -hondakinak behar bezala kudeatu direla frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu denez, udalak jarritako fidantza bueltatu daiteke.

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Larraulgo Beobideburu baserrian dagoen 2º etxebizitzari Lehen erabilerarako baimena ematea.

BIGARRENGOA.- Erabaki honen berri A.U.L. jaunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA FAKTURAK ETA ORDAINKETAK


Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IBERDROLA	141,85
IBERDROLA	76,77
MOVISTAR	19,02
MOVISTAR	48,61
MOVISTAR	132,08
MOVISTAR	80,34
MOVISTAR	17,99
DIONISIO ORMAZABAL	4,65
GIPUZKOAKO URAK	4.118,90
KEYLAN	130,53
BULEGOAK	142,84
ULAHÍ	377,52
MEGA	14,11
BABESA SUZAI	154,78
CORREOS	5,98
IMAZ COLOR	145,49
FONGUI	37,13

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.648,59** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMAIKAGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

11.1. EUDEL-ek EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, 2017KO EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKOA

Udalbatza honek, aho batez, puntu hau, bilkura honetan aztertzea erabakitzen du.

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendia, non ondorengoa dioen:

“ LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO GOMENDIOA 2017KO EKITALDIRAKO

2017ko ekainaren 28an, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

*Langileen gastuei buruzkoa den lege horren Hirugarren Tituluak honako hau xedatzen du **18. artikuluan. Bi:** “2017. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira”.*

2017ko uztailaren 13an izandako bileran, EUDELen Batzorde Eragileak hori aztertu du, eta komenigarritzat jo du EAeko udaletan artikulua horren interpretazioa eta ezarpena erraztea eta bultzatzea, langile publikoentzat ahalik eta onuragarrien izan dadin. Gainera, hori lagungarria izan daiteke UDALHITZ 2017 Akordio Arautzailearen negoziazioari begira. Horiek horrela, udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei GOMENDATZEN DIE neurri hau onar dezaten:

%1EKO ORDAINSARI IGOERA 2017KO EKITALDIAN


2017ko ekitaldian, sektore publikoko langileen ordainsariei %1eko igoera izatea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrira.

Neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak urte honetako urtarriletik aurrera izan ditzan ondorioak. “

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- 2017 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendia bere osotasunean onestea eta aplikatzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

11.2. SAN ESTEBAN JAIETAN POSTUAK JARTZEKO BAIMENA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Udalbatza honek, aho batez, puntu hau, bilkura honetan aztertzea erabakitzen du.

Ikusirik D.C.D.S., A.M.M.J., M.M. eta M.F.E. jaun/andreak eginiko eskaerak, non azaltzen duten San Esteban jaietan “camas elasticas”, “barredora”, “churreria” eta “juguetes” postuak jartzeko baimena eskaera egiten dutela.

Ikusirik, udal-kideen artean gai honi buruz, ez direla ados jartzen, gaia bozkatu egiten da, “Eskatzaile guztiei postua jartzeko baimenari buruz”, ondorengo bozka ematen delarik:

- Aldeko botoak: Leon, Jauregi, Serrano eta Asensio zinegotziak.
- Kontrako botoak: Urbieta eta Pizarro alkate eta zinegotziak.
- Abstentzioa: Sarria zinegotzia.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENEA: D.C.D.S., A.M.M.J., M.M. eta M.F.E. jaun/andreak eginiko eskaerak, non San Esteban jaietan “camas elasticas”, “barredora”, “churreria” eta “juguetes” postuak jartzeko baimena ematea. Ondorengo baldintza pean:

- Eskatzaile bakoitzak, 400 eurotako fidantza bat jarri beharko du.
- Esandako lekuan kokatu beharko dute bere postua.
- Baimenik gabe ezingo dute argindarra hartu.
- Eskatzaileak baldintza hauek ez baditu betetzen, baimena bertan behera geldituko zaio, postua kendu egin beharko duelarik.

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**


12.1. LARRAULGO HERRITARRAK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.20 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

